



**Mondragon
Unibertsitatea**

Biblioteka

Konpetentzia Digitalak

Graduko ikasleentzako formakuntza materialak

2. Komunikazioa eta lankidetza

2.3. Teknologia digitalen bidezko lankidetza:

2.3.4. Wikiak

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala



Bestelakorik adierazi ezean, itemaren baimena horrela deskribatzen da: Aitortu-EzKomertziala 3.0 Espainia, 2020

Komunikazioa eta
lankidetza.
Teknologia digitalen
bidezko lankidetza

WIKIAK




CRUE

REBIUN

Red de Bibliotecas Universitarias

HELBURUAK

Jarduera hau amaitzean, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:



LABURPENA

- Definizioa
- Ezaugarriak
- Osagaiak
- Arrakastaren adibidea
- Wikiak eraiki: PBWorks
- Lankidetzaren PBWorks-ean
 - Besteak gonbidatu
 - Edukiak sortu eta editatu
 - Atzeraelikadura
 - Bertsioen kontrola

DEFINIZIOA

Wiki bat **lineako idazketarako lankidetzatresna** bat da. Lankidetzazko web gune gisa definitzen da, non edonork gehitu dezakeen eduki berria eta jada argitaratuta dauden edukiak editatu edo ezabatu.

Taldean lankidetzan aritzeko diseinatu da bereziki, ezagutza sortzeko hainbat autorek batera parte hartzea sustatuz. Elkarlaneko edizio dinamikoa da, eta edozein kidek aldez aurretik edukia erabili, sortu, aldatu edo ezabatu dezake.

Blogak edo foroak bezalako beste web tresna asinkronoak ez bezala, talde lanerako espazioa eskaintzen dute. Kide ezberdinek edukien garapenean egiten duten **ekarpenen** bidez ideiak fintzea, arazoak konpontzea eta adostasunak lortzea ahalbidetzen duen tresna da.



EZAUGARRIAK


Ezaugarriak	Deskribapena
Azkartasuna	Wiki orrialdeak azkar sortu, argitaratu eta alda daitezke.
Sinpletasuna	Wikiari formatua emateko HTMLren bertsio sinplifikatu bat erabiltzen da sorkuntza erraztuz.
Eduki irekia	Taldeko kide bakoitzak edukia sortu, aldatu eta ezabatu dezake. Wikiaren eguneratzea, edukia argitaratu aurreko berrikuspenik gabe egiten da.
Mantenketa ahalmena	Wikiak bertsioen historia batean jasotzen du edukiaren edizioan egindako aldaketa bakoitza, bertsio horiek kudeatzea ahalbidetuz.

OSAGAIAK

Osagaia	Deskribapena
Orria edo artikulua	Wikiaren eduki nagusia.
Edizio atala	Edukia sortzea eta aldatzea errazten du.
Eztabaida atala	Guneko kideen arteko elkarlana ahalbidetzen du, edukiari buruzko iritzia eta eztabaida sustatuz.
Aldaketen historia	Edukian egindako aldaketak ikustea ahalbidetzen du, baita nork eta noiz egin dituen ere.
Bilatzailea	Wikiaren barruan edukiak bilatzea errazten du.

ARRAKASTAREN ADIBIDEA

Wikirik ezagunena **Wikipedia** da. Eduki irekiko lineako entziklopedia, non artikulua bakoitza Wikiaren kideek edita dezaketen. MediaWiki wiki motorra erabiltzen du eta bere arrakasta handiak Wikimedia Foundation-aren sorrera bultzatu du, wikietan oinarritutako **ezagutza irekia** sortzea helburu duen erakundea.



WIKIPEDIA
Entziklopedia askea


WIKIEN ERAIKUNTZA: PBWORKS

PBWorks, wikiak eraikitzeke zerbitzuen artean ingurune akademikoetan talde-lana errazteko erabilienetako bat da.

Kide gutxiko taldeentzat tamaina ertaineko lan-guneak sortzeko aukera ematen du.

Funtzio nagusiak honakoak dira:

- Edukiak sortzea
- Lankidetzako lineako edizioa



The screenshot shows the PBworks FrontPage interface. At the top, there is a navigation bar with icons for Wiki, Pages & Files, Users, and Settings. Below this, there are tabs for VIEW and EDIT. The main content area features a star icon next to the title 'FrontPage'. Below the title, it indicates 'last edited by PBworks 15 minutes ago' and includes a 'Page history' link. The main text reads: 'Welcome to PBworks. This is a real workspace! Please edit this page, create new pages, and invite others to use this workspace with you.' There are two sections: 'Get Great Ideas!' with a bullet point about learning from other users, and 'Need Help? We're here for you:' with two bullet points about the PBworks Manual and the help link.

PBWORKS

Wiki Pages & Files Users Settings

VIEW EDIT

☆ **FrontPage**

last edited by PBworks 15 minutes ago [Page history](#)

Welcome to PBworks

This is a real workspace! Please edit this page, create new pages, and invite others to use this workspace with you.

Get Great Ideas!

- Learn what makes a good collaboration project and see how other PBworks customers are using their workspaces. Check out our [PBworks educator community](#).

Need Help? We're here for you:

- [The PBworks Manual](#) can help show you how to edit, add videos and invite users.
- The best way to get your support questions answered is to **click the help link** at the top of this page. Our support gurus will get back to you asap.

WIKIEN ERAIKUNTZA: PBWORKS

- 1 Lan eremua sortu

<https://plans.pbworks.com/signup/edubasic20>

- 2 Aukeratu zure lan eremuarentzat azpidomeinu izena

Choose your address .pbworks.com

- 3 Sartzeko, balio duen helbide elektroniko bat gehitu

Your email address
We will send a confirmation message to this address.
Enter password

- 4 Wikira sartu

<https://my.pbworks.com/>

My PBworks

Please log in
Enter your email address and password to log in. No account? [Sign up!](#)

Email address

Password

Remember me


[Forgot your password?](#)

Wiki sortzaileak administratzaile maila izango du, eta beste erabiltzaileei ere maila bera eman diezaieke.

LANKIDETZA PBWORKS-EN: BESTEAK GONBIDATU

Wikiaren helburu nagusia beste pertsona batzuekin edukien garapenean lankidetzan aritzea da. Horrela, lehen urratsa lantaldeko kideak gonbidatzea da.

1 Lan eremuan partehartzera gonbidatu



Add Users

Add people to this workspace by entering their email addresses.

Users to add

Permission level **Writer** [Learn more](#)

or [cancel](#)

2 Baimen maila ezarri (Writer lehenetsia)


Baimen maila	Ekintza onartuak
Administratzailea	Edukia ikusi, editatu, mugitu eta ezabatu; erabiltzaileak gehitu eta ezarpenak aldatu
Editorea	Edukia ikusi, editatu, mugitu eta ezabatu
Writer	Edukia ikusi eta editatu,
Reader	Edukia ikusi
Page-level only	Orrialde zehatzetara sarbidea

3 Berretsi gonbidapena

LANKIDETZA PBWORKS-EN : EDUKIA SORTU ETA EDITATU

Testuaz gain, wikiaren orrialde bakoitzean barneko edo kanpoko estekak, irudiak eta erantsitako fitxategiak gehitu daitezke

1 Sortu orri berri bat



Name your page

Put this page in a folder


2 Gehitu eta editatu edukiak

A screenshot of a wiki editor interface. At the top, there are two tabs: 'VIEW' and 'EDIT', with 'EDIT' selected and highlighted by a red box. Below the tabs is the title 'Práctica 6'. Underneath is a rich text editor toolbar with various icons for bold, italic, underline, strikethrough, text color, background color, bulleted list, numbered list, link, unlink, table, and insert. Below the toolbar is the main content area. The first section is titled 'OBJETIVOS' and contains a bulleted list of four objectives in Spanish. The second section is titled 'ANÁLISIS DAFO' and contains a paragraph of text. At the bottom of the editor, there are three buttons: 'Save' (highlighted with a red box), 'Save and Continue', and 'or Cancel'. On the far right, there is a link that says 'Describe your changes'.

LANKIDETZA PBWORKS-EN : EDUKIA SORTU ETA EDITATU

PBWorks-en elkarlaneko edizioa modu asinkronoan garatzen da, beraz, bi kidek ezin dute eduki bera aldi berean editatu.

Bista-moduan [VIEW] ohar bat jasoko dugu gure taldeko beste kide bat orria edo dokumentua editatzen ari bada. Horrek esan nahi du argitalpena gainerako kideentzat blokeatuta egongo dela.




VIEW **EDIT**

☆ **Práctica 6**

last edited by  Elena 4 weeks, 1 day ago

 Elena is editing the page [Steal lock](#)

Beste kide bat editatzen ari denean edukia blokeatuta egon arren, behar izanez gero, [Steal lock] aukeraren bidez desblokea daiteke edizio-modutik [EDIT].



VIEW **EDIT**

Práctica 6 ab

OBJETIVOS

- Aumentar los ingresos por ventas en un 20% para el año 2020.
- Llegar a superar la cifra de consumidores de 10.800 para el 2020.
- Aumentar la participación
- Identificar el mercado de

ANÁLISIS DAFO

Nosotros como empresa contam
debilidades y cualquier amenaza que se presente.

- **Fortaleza: UNO**

Page is Locked





This page is being edited by Elena.

Steal lock or [cancel](#)

Save **Save and Continue** or [Cancel](#) [Edit tags](#)

LANKIDETZA PBWORKS-EN: ATZERAELIKADURA

Wikia bezalako lankidetzaren eremu batean, funtsezkoa da atzeraelikadura ematea eta jasotzea, adostutako eduki batera iristeko.

Ekintza	Komunikazioa	Modua	Deskribapena	Bistaratzea
Komentatu [Add a comment]	Asinkronoa	Bista [VIEW]	Lan-eremuko kideen arteko komunikazioa errazteko, iruzkinak gehitu eta hauek modu habiaratuan erantzun daitezke.	<p>Comments (2)</p> <p> Mario said at 10:53 am on Aug 30, 2018 Reply</p> <p>Propongo añadir las tablas completas en un anexo</p> <p> Elena said at 10:54 am on Aug 30, 2018 Reply</p> <p>Ok! Yo me encargo ;)</p>
Aldaketak deskribatu [Describe your changes]	Asinkronoa	Edizioa [EDIT]	Wikiaren orri bat gehitzen edo editatzen dugunean, aldaketa deskriba dezakegu taldeko gainerako kideei azaltzeko. Bista-moduan [VIEW], orriaren azken edizioari buruzko informazioan aldaketaren deskribapena ikus daiteke. Gainera, aldaketen historian bistaratu daiteke [Page history].	<p>last edited by  Elena 3 minutes ago </p> <p>Añadidas conclusiones August 30, 2018 at 10:57:50 am by Elena</p>

LANKIDETZA PBWORKS-EN: BERTSIOEN KONTROLA

Wikiaren edukietan aldaketak egiten direnean, aldaketa horiek gorde egin behar dira.



Bista-moduan [VIEW], orrialde bakoitzaren bertsioen historiara sar daiteke [Page history].



Wikiaren orrialde batean egindako aldaketa bakoitzak bertsio bat ematen du (*revision*).

Revisions (3)


Orrialde bakoitzaren bertsioen historian, sortu zenetik egindako aldaketa guztiak agertzen dira, noiz eta nork egin dituen adierazten duen informazioa erantsiz. Bertsio horien konparaketa egin daiteke horietako bakoitzean egindako aldaketak ezagutzeko.

Revisions (3)

Compare

- Añadidas conclusiones
[August 30, 2018 at 10:57:50 am](#) by [Elena](#)
- No description entered*
[August 29, 2018 at 1:48:47 pm](#) by [Elena](#)
- No description entered*
[August 28, 2018 at 12:56:37 pm](#) by [Mario](#)

Aldaketa bakoitzaren dataren gainean klik egitean, osorik ikusiko dugu, eta hortik berrezar dezakegu bertsioa.

 This version was saved 22 hours, 29 minutes ago
[View current version](#) [Revert to this version](#) [Page history](#)

GEHIAGO JAKITEKO...

Begiratu [PBWorks-eko Eskuliburua](#)



**Mondragon
Unibertsitatea**

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure [bibliotekan](#):



Basque Culinary Center

Biblioteka

Juan Abelino Barriola pasealekua, 101
20009, Donostia, Gipuzkoa.
T. 943574514
biblioteca@bculinary.com

Enpresa Zientzien Fakultatea

Biblioteka

Ibarra Zelaia, 2
20560, Oñati, Gipuzkoa.
T. 943718009
biblioteca.enpresagintza@mondragon.edu

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Biblioteka

Dorleta, z/g.
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.
T. 943714157
biblioteca.huhezi@mondragon.edu

Goi Eskola Politeknikoa

Biblioteka

Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.
T. 943794700
biblioteca.mgep@mondragon.edu